

Elgoibar 1339, zenb.  
XXXI. urtea - 2024/09/13



# Erronka sagastian

# Eman izena Matricúlate

irailaren 25era arte

## Elgoibarko AEK euskaltegia

Gabriel Kurutzelaegi 10  
(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)

Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan eta beka udalari esker.

607 601 423

[elgoibar@ae.k.eus](mailto:elgoibar@ae.k.eus)

### Euskara eroso bizitzeko

Vive el euskera  
cómodamente

**ae.k**  
euskara praktikoa



#### MATRIKULA BEREZIAK:

C1 (lehenengo EGA) 16-18 urtekoentzat: 33 euro

A1 (curso de iniciación) denentzat: 100 euro



#### AMAIA

Euskara maila hobetzea, eta, bide batez,  
B2 mailako titulua lortu dut.



#### JUAN MARI

Jendearekin ulertzeko eta komunikatzeko.



#### MIREIA

C1 titulua lortzeko, lanari begira.



#### OSKAR

Etorkizunean bilobekin behintzat  
euskaraz hitz egiteko

# ELGOIBAR

# GBT24

GIPUZKOAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2024

 Irailak 22, igandea, 17:00

 Herriko Antzokia

Antolatzailea: Laguntzailea:



"barren

Babesleak



FAGOR

[www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

LABORAL  
KUTXA



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Edurne Izagirre

Psikologoa

## Identitatea ez da nortasuna



**"Identitatea da  
nik proiektatzen dudana,  
nola aurkeztu nahi nukeen  
nire burua"**

**G**aur egun, gure buruaren lanketarako globalizatuta dauden teknika gehienak norbere identitatea lantzea proposatzen dute, pentsamendu kontzientearen bitartez. Identitatea da nik proiektatzen dudana, nola aurkeztu nahi nukeen nire burua. Gertatzen dena da meditazio eta mentalizatorako diren ariketa guztiak eginda ere, gustuko ez dugun moduan jokatzen amaitzen dugula egoera ezberdinetan: jarrera batek guk nahi baino gehiago mindu edo haserretu gaitu; ustekabeen zapuzkeria bat atera zaigu, ustez inolako gatazkarik ez dugun norbaitekin; edo auzokoa nirekin minduta sumatu dut, nik lagundu besterik egin nahi ez diodanean.

Gustuko izan zaizkigun idealekin, nortasunaren alde kontzientea eta ingurura egokitzeko sortua da identitatea. Baina gure nortasunean osagai sakon eta indartsuagoak daude; geure historia, arbasoak, iruditeri kolektiboa eta oinarrizko emozioak, esaterako.

Arlo sozialean, kolektibo baten identitatea euren estatutuan idatzitakoa litzateke; zein asmo eta helburu kontzienterekin sortu den kolektiboa. Baina euren praktika errealak definituko luke nortasuna; sortzen diren talde dinamikei aurre egiteko modua, adostasunetara iristeko gaitasuna, idatzitako hori betetzen ari den ebaluatze sistemak diseinatu eta praktikatzea etab.

Arlo indibidualean berdina gertatzen da. Nik neure burua ikus dezaket erabat solidario, integratzaile eta tolerante, baina segundu batez pentsatu gabe, erderaz egingo diot lehen hitza azal ilunxeagoa ikusi diodanari eta nondik etorria den galdetuko diot azal ilunekoari. Atzo bertan bizi izan nuen neure alabarekin Urbiako zelaietan. Ez baldin badugu gure nortasuna osatzen duten barne legeetan sakontzen, jaio garen gizarteko iruditeri kolektibotik ikusiko dugu errealitatea, eta kontziente izan gabe, jarrera eta jokaera arrazista, matxista eta klasistak aterako zaizkigu, hauek baitira hazi garen gizartearen barne legeak.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Eskerrik asko**

Kaxeta elkartearen partetik gure esker ona adierazi nahi dizuegu San Antolingo jaietara gerturatu zaraten guztioi eta jaiak egitea posible egiten duzuen laguntzaile guztioi. Espero dugu primeran pasatu izana.

Eskerrik asko eta datorren urtera arte!

Unai

### **Mila esker!**

Esker hitzak besterik ez ditugu zuentzat. Joan zen zapatuan Lizagasar Sagartokiko atea ireki genizkizuen: goizean zehar upategi berria ezagutzeko aukera izan zenuten, eta arratsaldean, sagastien arteko lasterketaz gozatu genuen. Lehenik eta behin, mila esker eguna gurekin igarotzea erabaki zenutenoi, eta eskerrik

asko zapatuan etorri ezin baina lau urte hauetan gure alboan egon zareten guztioi. Esker mila elgoibartar guztiei, baita auzotarrei ere. Horrez gain, eskerrak eman Txelu, Denis eta CATT Morkaiko taldeko partaide guztiei. Bestalde, mila esker Amaia eta Alfonsori. Eta azkenik, eskerrik asko bihotz-bihotzez lagun eta familia guztiari, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako proiektu honekin aurrera egitea. Besarkada handi bat zuei guztioi!

**Lizagasar Sagartokiko Asier, Ane eta Martin**



### ***Constantina Nicolas Salazar***

2024ko abuztuaren 22an hil zen, 90 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



### ***Maria Jesus Sodupe Mendikute***

2024ko abuztuaren 29an hil zen, 55 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Bihotza saminez geratzeaz bat,  
izar bat piztu da zeruan,  
bidelagun izango duguna.  
Beti gogoan izango zaitugu.***

Etxeakoak





## **Antonio Arrizabalaga Ugarteburu** *“Ziarda”*

2024ko uztailaren 21ean hil zen, 89 urte zituela. Bere oroimeneko meza domekan, irailaren 15ean izango da, Elgoibarko Bartolome deunaren eliz-parrokian, 11:00etan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ziarda izan da jaiolekua,  
bizipen askon lekuko;  
famiariaren gordelekua  
nola ez dugu maitatuko.  
Gehiago ez gera mahai inguruan  
zure ondoan bilduko,  
baina argi bat izango dugu  
gure artean gertuko,  
eguzki izpi bat Morkaiko ostein  
agertzen zaigun orduko.***

Ettxekoak




## **Gauden Gonzalez Asenjo**

2024ko uztailaren 28an hil zen, 75 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Inoiz itzaliko ez den zeruko izarra bihurtu zara.  
Beti gurekin, asko maite zaitugu.***

Ettxekoak




## **Maribel Iriondo Urzuriaga**

2024ko uztailaren 31n hil zen, 65 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izugarrizko hutsunea uzten duzu gure artean,  
ikaragarritzko kemena izan duzu zure barrenean,  
sekulako sufrimenduak izan dituzu azken bidean,  
neurrigabeko maitasuna daukagu bihotzean,  
betirako biziko zara maite zaitugunen tartean.***

Ettxekoak



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658




### Arregitorretik Erretsundirako bideak zabortegia dirudi:

"Txakurrarekin joaten naiz Arregitorre eta Erretsundi ingurura, eta azkenaldian nazka ematen du leku horrek. Garagardo latak eta plastikozko botilak ohikoak dira, baina azkenaldian tanpoiak eta kondoiak ere ugaritu dira. Nire txakurrak dena ahora eramaten du, eta arriskutsua da, baina joan den astean ume batzuk erabilitako kondoiekin jolasean ikusi nituen. Nazkagarria. Jendeari eskatu nahi nioke horren zikina ez izatea".



### Kiroldegi ingurua txakur kakaz beteta dago:

"Txakur jabe batzuek edozein berdegune erabiltzen dute txakurrak kaka egitera eramateko. Udalak jarri zituen txakur jabeentzako kartelak, baina askok ez dute kasurik egiten. Kiroldegi atzeko berdegunea erabiltzen dute askok, bizikleta garbitzeko lekua, eta gero ez dute kaka batzen. Ez da horrenbesteko lana kaka jaso eta zabor edukiontzira botatzea, hain justu edukiontzia hortxe ondoan daude-eta".



## 2025eko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

### GAIA: "ELGOIBAR, ELKAR ZAINTZEN DUEN HERRIA".

Argazkia Elgoibarren eta 2023ko urritik aurrera ateratakoa izan beharko da.

### PARTE-HARTZAILEAK: Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenak

### ARGAZKIEN FORMATUA: Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.

### LAN KOPURUA: Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

### LANEN AURKEZPENA: Argazkiak emailaz bidaliko dira [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera. Mezuan honako datu hauek agertu beharko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, eta argazkiaren lekua eta data.

### ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA: 2024ko urriaren 8ra arte.

### SARIA: Hamahiru argazki sarituko dira, eta bakoitzak 80 euroko bonua jasoko du Txankakua Merkatari Elkartereko dendetan gastatzeko.

### LEHIAKETAREN OINARRIAK: [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus)



## Jaia eta lehia San Antolin jaietan

San Antolin jaiak ospatu zituzten asteburuan, eta jai lehiarekin uztartu zuten. Dagoeneko tradizio bilakatu diren txapel eta oliba-hezur jaurtiketa txapelketak jokatu zituzten barikuan, eta herri kirolak, umeentzako jolasak eta pulstu txapelketa izan ziren zapatuan. Kitzikita aldearen erromeriak girotu zuen gaua. Errifak ere saldu zituzten, eta hauek izan dira zenbaki saridunak: 1. saria: 4164 (ordezkoa: 1197) eta 2. saria: 1229 (ordezkoa: 5839). Argazki eta informazio gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)



## Sokamuturra antolatu du Elgoibarko Udalak urriaren 6rako



San Bartolome jaietako sokamuturretan aritzeko lau ganadutegik eman zuten izena eta horietako baten abereak askatuko dituzte urriaren 6an, Saka ganadutegikoak. King Kongen hasiko dute sokamuturra, 08:00etan, eta Kalebarren plaza, San Bartolome kalea, Errosario kalea, Kalegoen plaza, Bolatokiko parkea eta Santa Ana kalean barrena ibiliko dira, 10:45ak bitartean. Egun horretan bertan, Errosario kaleko Ama Birjinaren ezpata-dantza dantzatuko dute Haritz Euskal Dantzari Taldekoek.

Udaletik jakinarazi dute herritarrek sokamuturra udal eraikinetako balkoietatik ikusteko aukera izango dutela. Interesdunek irailaren 15era arte eman ahal izango dute izena, egun hori barne. Horretarako, Elgoibarko inprimaki bat bete beharko dute Elgoibarko Udalaren webgunean, gaiari dagokion albistean sartuta. Izena emandako guztien artean zozketa egingo dute irailaren 16an. Irabazleek beste pertsona bana eraman ahal izango dute balkoira (ez dituzte zenbatuko urtebete baino gutxiagoko haurrak, baldin eta besoetan eramaten badira). Hala, sokamuturra udaletxetik ikusteko hamabost pertsona aukeratuko dituzte (30 plaza), eta Kultur Etxetik ikusteko, bost pertsona (10 plaza). Aukeratuei posta elektronikoki bidez jakinaraziko diete, eta NANarekin aurkeztu beharko dira egokitu zaien balkoira. Sokamuturra Kultur Etxetik ikusi behar dutenek 07:45etarako egon beharko dute han, eta, udaletxeko balkoitik ikusi behar dutenek, berriz, 09:00etarako.

## Primitibak 367.563 euroko saria laga du Elgoibarren



Jabi Leon / DV

Primitibak 367.563 euroko saria laga du Elgoibarren asteen. Silvia Fernandez da sariduna eta Errosario kaleko estankotan zigitatu zuen txartela, lan egiten duen lekuan. Irailaren 9ko zozketan sei zenbaki asmatu zituen. Reintegro zenbakia asmatzea bakarrik falta izan zitzaion, alegia, plenoa osatzeko. Elgoibarko txartelak besteko saria eskuratu zuen beste bat ere izan zen, Cadizen (Espainia).

2015ean milioi bat euroko beste sari bat ere utzi zuen Elgoibarren Primitibak, eta 2021ean, milioi bat euroko saria, Euromillones jokoak.

### Ekainean Elgoibarren bertan behera utzitako iktusari buruzko hitzaldia irailaren 18an emango dute

Duintasunak eta Euskadiko Pertsona Antikoagulatuen Elkarteak ekainaren 18rako iragarri zuten hitzaldia, baina azken orduan bertan behera laga behar izan zuten, hizlariari ezin bat suertatu zitzaiolako. Hitzaldi hori irailaren 18an, datorren eguaztenean, emango dute, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 18:30ean hasita. *Iktus kodea* izenburua eman diote hitzaldiari eta iktusaren sintomak aletu eta haiek detektatzean zer egin azalduko dute, besteak beste.

Osakidetzatik emandako datuen arabera, urtero, 5.000 iktus-kasu inguru ematen dira Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, baina kasuen %80 inguru saihestu ahalko lirateke bizi-ohitura osasungarriak hartuta eta ariketa fisikoa eginda.



## Txankakuako dendetan erosketak egiten dituztenek oparia jasoko dute

Irailaren 30era bitartean Txankakua merkatarri elkartera batutako dendetan txartelarekin erosketak egiten dituenak aterki bat jasoko du opari, lehenengo erosketagatik (aterkiak agortu bitartean). Elgoibarko Udalaren, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Nafarroako Rural Kutxaren laguntzarekin jarri dute martxan Txankakuako arduradunek.

Txankakuaren txartela sustatzeko kanpaina gehiago ere egingo dituztela aurreratu dute elkartetik. Urritik urte amaierara bitartean, 3.000 euro banatuko dituzte erosketak egiten dituztenen artean, ausaz, 10 euroko deskontuetan. Elkartetik gogorarazi dute txartela doan eskuratzen dela, eta gainera, bezeroari hiru hilabetean ordaintzeko aukera ematen diola, interesik ordaindu beharrik gabe.



### Gure Balioak sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu dute

Debabarrean garapen iraunkorra sortzeko beharrezkoak diren balio sozialak indartzeko sortu zuen Gure Balioak Saria Debegesak, eta 2010az geroztik bi urtean behin antolatu izan du sariaketa, nahiz eta azkeneko edizioa 2019an egin zuten, pandemia aurrean.

Gizarte-balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo entitatea saritu izan du Debegesak sari honekin, baina aurten, lehen aldiz, kategoria desberdinak bereizi dituzte eta hiru sari banatuko dituzte: bitzita osoko ibilbideari emandako saria, proiektu sozialenari emandakoa eta gazte ekimenari dagokiona. Betiko kategoria da lehenengoa, eta beste biak berriak dira eta 2.000na euro jasoko dituzte irabazleek, Orbea eta Laboral Kutxa enpresek emandako

laguntzari esker. Gazte Ekimena Saria Laboral Kutxak babestu du eta Debabarrenean enpresa-proiektuak garatu dituzten gazte ekintzaileak balioan jartzea eta babestea dauka helburu. Gizarte Ekimena Sariak, berriz, gizartean eragin positibo esanguratsua izan duten elkertasun-helburuekin proiektu berritzaile eta iraunkorrak garatu dituzten edo garatzen ari diren gizarterakundeek lana aitortzera dator.

Herritarrek aukera dute hautagaitzak aurkezteko urriaren 11 bitartean. Horretarako Debegesako webgunean eskura dagoen formularioa bete behar da. Zalantzarik izanez gero edo informazio gehiago behar izanez gero, [marketing@debegesa.eus](mailto:marketing@debegesa.eus) helbidera idatzi daiteke edota 943 820 110 telefono zenbakira deitu.

### Odol ateratzeak, gaur, Elgoibarren



Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, hilak 13, Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian, 16:30etik 20:00etara. Ordua hartzeako: 623 328 408.

### San Migel jaietako afarirako izen-ematea zabalik

San Migel zaindariaren omenezko jaiak ospatuko dituzte Aiasian iraileko azken asteburuan. Urtero bezala, pilota partidak, idi-demak eta Haritz dantza taldearen emanaldia antolatu dituzte besteak beste, bai eta afaria ere zapatu gauerako. Afaritarako izena aurrez emateko eskatu dute antolatzaileek: 666 269 636 (Elorri).

## Lanbide Heziketaren 125. urtemugaren hasiera ekitaldia egingo dute Elgoibarren hilaren 18an

Asteazkenean 125 urte beteko dira Elgoibarko Udalak Lanbide Heziketako eskola sortzeko baimena ematen zuen agiria sinatu zuenetik. 1899ko irailaren 18 hura mugarria izan zen Elgoibarko historian, eta ospatzeko, ekitaldi ofiziala egingo du Elgoibarko Udalak, eguztenean. "Ekitaldia merezitako aitortza izango da Elgoibarko Lanbide Heziketarentzat, baita urte hauetan guztietan prestakuntza horrek gure gizarte-, industria- eta enpresa-ekosistemaren elementu eraldatzaile gisa duen garrantzia ulertu zuten pertsona eta erakundeen ikuspegiarentzat ere", aurreratu dute Udaletik.

Ekitaldiaren berri iragartzeko oharrean Udalak zorionak eman dizkie Lanbide Heziketako ikastetxeei eta industria arloko enpresei, bai eta Elgoibarko herriari ere. "Ahalegin eta dedikazio bateratua izan da eta izango da gure gizartearen funtsezko motorra, teknologiaren eta berrikuntzaren abangoardian". Nabarmendu dute eragile ezberdinen arteko elkar-hartze horri esker, Elgoibarko Lanbide Heziketak aitzindari eta erreferente izatea lortu duela hezkuntza-berrikuntzaren funtsezko alderdietan, hala nola, erronketan edo proiektuetan oinarritutako metodologia aktiboetan (Ethazi), prestakuntza dualean eta Lanbide Heziketak industriarako berrikuntza aplikatuko inguruneetan ekarri duen eraldaketan, eta Lanbide Heziketak emandako



talentu horri esker, inguruko enpresak, industria-elkarteak eta enpresa-elkarteak indartu egin direla.

Ekitaldia 12:00etan hasiko dute udaletxean. Alkateak eta udalbatzak ongiatorria egingo diete erakunde, ikastetxe eta enpresetako ordezkariari, eta 1899ko irailaren 18an jasotako akta irakurriko dute. Ondoren, udalbatza eta udaletxera batutako gonbidatuak Aita Agirre kulturgunera joango dira, Marrazketa Akademiaren lehenengo egoitzara, eta han, Lanbide Heziketako ordezkari historikoekin, egungoekin eta gainerako gonbidatuekin bilduko dira. Hitzaldi instituzionalen eta omenaldi-ekitaldiaren ostean mokadua izango dute bertan.

### Elgoibarko Udalak 7.000 euroko beka emango du, herrian kultura eta artea sustatzen laguntzeko

Elgoibartarren artean sormen-lanen ekoizpena sustatzeko 7.000 euroko beka emango du Elgoibarko Udalak. Literatura, antzerkia, zinema, ikus-entzunezkoak, dantza, arte plastikoak nahiz beste arte diziplinetan aritzen diren sortzaileei lagundu nahi die Udalak, izan proiektuak bakarkakoak nahiz taldean sortutakoak. Hori bai, proiektuak 2024ko ekitaldian gauzatu behar dira, eta bat etorri behar dute Herritarren Batzordearen helburuekin. Elgoibarko kultur bizitzan parte hartzea eta udalerriko artisten,

elkarteen, enpresen eta partikularren arteko lankidetzaren sustatzea du helburu batzorde horrek.

Elgoibarren erroldatuta dauden edo herrian jaiotako pertsonen edo toki-erakundeek eskatu ahal izango dute beka, eta eskatzaileek 18 urtetik gorako izan behar dituzte eskabidea aurkezten duten egunean. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urriaren 8an amaituko da. Informazio gehiagorako deitu Kultura Sailera (943 742 158) edota kontsultatu Elgoibarko Udalaren webgunea: [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus).



## *Anton Muguerza Uncilla*

2024ko abuztuaren 7an hil zen, 60 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez egin negarrik  
amaitu delako;  
irribarre egin  
bizi izan dugulako.***

Etxekoak



## *Jesus Galdos Aguirreamalloa*

*“Orube”*

2024ko abuztuaren 12an hil zen, 71 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



## *Carmelo Loiola Idiakez*

2024ko irailaren 5ean hil zen, 81 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako  
doluminak, bai eta hileta elizkizunetara  
agertu izana ere.

***Pertsona ona izan zara bizitzan.  
Deskantsatu zeruan,  
zure alabaren ondoan.  
Beti eramango zaitugu bihotzean.***

Etxekoak



# 25 URTE BETE DITU BELAUSTEGI JATETXEAK

✍️ Ainara Argoitia / 📍 Asier Orbea

**25 urte bete zituen ekainaren 10ean Belaustegi jatetxeak, Josu Mugertza Idiak ez sukaldariaren proiektuak. Han bertan sortua da Mugertza, bigarren solairuan, gaur sei lagunentzako jantoki pribatu bihurtua duten gelan, eta hantxe bizi ere da, Xabier Albizu sozioarekin. 25. urtemuga dute aurten eta xume-xume ospatu zuten, urte luzez jarraitu nahiko luketelako bertan lanean. "Nik hartuko dut erretiroa sasoi iristen denean, baina gero ere hemen jarraituko dut, bezeroekin hartu-emanen, Belaustegi ez delako itxiko", nabarmendu du Mugertzak.**



**A** metsak betetzeko daude, eta ez amets hutsean geratzeko, baina horretarako, ekin egin behar da, bila irten, eta horixe egin zuen Josu Mugertzak, Belaustegi jatetxeko sukaldariak, oso gazte zela. Ume-umetatik nahi izan zuen jaiotetxean jatetxea zabaltzea, eta 13 urterekin utzi zuen Aiastia gaineko bakea, noizbait ametsa egi bihurtzeko itxaropenarekin. Eta saiatzen denak lortzeko aukera izaten du, jakina. Bidea ez zen samurra izan, eta izerdi asko isuriko zuen, bai sukaldean eta baita bulegoetan ere, su ondoko lanek eta presek besteko izerdia eragiten dutelako sarri bulegoetan jartzen diren zailtasun eta trabek, baina duela hogeita bost urte, ekainaren 10 batez, zabaldu zuen Belaustegi jatetxea, eta gaur, erreferentziazko lekua da ondo jan nahi duenarentzat, bai eta esperientzia berezi bat bizi nahi duenarentzat ere.

Erreportaje honetarako, opor aurrean batu ginen Josu Mugertzarekin eta haren sozio Xabier Albizurekin Belaustegin, eguneko lehenengo bezeroak iritsi aurrean. Amantala eta buruko zapia jantzita, sukaldean ari zen ordurako Mugertza, eta terrazako lora eta apaingarriak txukuntzen Albizu. Guretzat jatetxea dena, haintzat bitzoki

ere bada, eta igarri-igarrikoa da hori ingurura begiratuta, nekez mantendu ahal delako inguru guzti hori hain txukun eta hain ikusgarri, etengabeko ukitu horiek gabe. Bakea arnas zitekeen Belaustegin. Uda beteko eguna egiten zuen, eta Donostiako hondartzetan estreinako karabela portugaldarrak atzeman zituztela irakur zitekeen tabernako mostradore gainean zabalik zuten egunkarian. Bertan gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen dute egunero etxeok, etxea den zatian sukaldari ez dutelako. Kikara bete kafe hartu eta terrazan hasi genuen solasaldia. Dena prest zuten jantokian bezeroak hartzeko. Dena zegoen mimoz zaindua han. "Beti gaude gauzak aldatzen. Orain, terrazako altzari guztiak aldatu ditugu, eguzki plakak jarri, lorategia txukundu... Jendeak flipatu egiten du datorrenean. Gero badago beste bezero tipo bat, atarian elefante bat jarrita ere konturatuko ez litzatekeena, baina gehiago dira bestelakoak", esan zuen Mugertzak.

Hilabete da 25. urteurrena ospatu zutenetik. Astelehenean egokitu zen urtemuga eta xanpain kopa bana atera zieten egun horretan bezero izan zituztenei. "Ospakizun xumea izan zen. Etxekoekin afaldu genuen iluntzean, eta listo".



Duela hogeita bost urte Aiastiako gainean jatetxea zabaltzea ez zela bideragarri esan ziotenekin gogoratuko zen beharbada, Madrildik iritsi berri zen "flipatutzat" hartu zutenekin, baina noizbait izan zuen ametsa bete eta hogeita bost urtez eutsi diola ospatu zuen, senide eta lagunekin. "Egon zen sasoi bat pena puntu bat izan nuena logela batzuk atondu ez izanagatik, baina errealizatu sentitzen naiz oso, bai", aitortu zuen.

## MUNDUA, IKASGELA

Ez da hitz askokoa Josu Mugertza, baina kontatzen du 13 urte bete zituen udan hasi zituela sukaldari ikasketak, Donostian. Urola jatetxean jardun zen aprendiz, eta handik Madrilerara egin zuen gero, Luis Irizar sukaldari handiarenera (Habana, Kuba, 1930 - Donostia, 2021), Rikardo Idiakenez osaba txikiaren gomendioz (ama zuenaren lehengusua). Idiakenez Txomin izeneko jatetxe bi izan zituen, bata Eibarren eta bestea Donostian, Antigua auzoan, biak ere ospe handikoak, eta harreman estua zuen Irizarrekin, euskal sukaldaritzan erreferente diren Juan Mari Arzak, Pedro Subijana, Karlos Argiñano, Ramon Roteta eta beste zenbait sukaldariren maisu

izandakoarekin. Madrilen, Alcalá hotelean eta euskal etxean aritu zen sukaldari lanetan, beste gazte askorekin batera. Frantziara joatearekin amesten zuten orduko sukaldari gazte gehienek, "handia zen Parisen erakarmena", baina Mugertzak Asia zuen begiz jota, Japonia zehazki. "Hango denak" erakartzen zuen. Baina ohiko bidez beste bat hartzea beti izaten da zailagoa, eta Japoniara joatean ere ez zuen nahi bezain erraza izan. Kagoshimako jatetxe batean egin zuen urte t'erdi bat lanean. "Milioi t'erdi lagun bizi dira han eta kalean guardasola zabalik erabiltzen dute askok, sumendia sarri egoten delako erupzioan eta errautsa askatzen duelako". Markatu zuen hango kulturak, hango sukaldaritzak, eta fusionatu du euskal sukaldaritzarekin plater askotan. Kagoshimatik Valentziara (Herrialde katalanak) aldatu zen gero, jatetxe bat zabaltzera. Ordurako izena hartzen hasia zen, eta zortzi bat hilabetera, Mexikora, Puerto Vallartara, jo zuen. "Luxuzko belaontzien kluba sortu behar zuten han eta *chef* euskaldun bat nahi zuten jatetxerako, Euskal Herriko sukaldaritzak fama handia duelako munduan".

Munduan hara-hona egindako ibilietan bildutako eskarmentua eta egiteko modu ezberdinak ezaugarritzen dute gaur Mugertzaren sukaldaritzak. "Sasoain sasoiko produktuen konbinaketak eta kultura ezberdinen arteko fusioa nahasten dira gure plateretan. Orain neguan ere jan daitezke gereziak, baina zertarako jan behar ditugu Brasildik ekarritako gereziak dirutza ordainduta?. Orain denetarik eta noiznahi topa dezakegu merkatuan, baina ez dezagun ergelkeriarik egin. Orain, uztailean, jan ditzagun tomatea eta hegaluzea!", dio. Sukaldeko lana da sukaldariena, baina gaur laborategiko lana ere bada, hein handi batean. "Ez dauka zerikusirik gure etxeetan ezagutu dugun sukaldaritzarekin; orain dena da askoz teknikoagoa. Izan zaitezke klasikoagoa edo berritzaileagoa, baina klasikoena ere gauza askoz gehiago zainduko ditu orain, bai sukaldatzeko orduan eta baita zerbitzatzeko orduan ere". Baina lehen eta orain ere, sukaldariak bezeroa asebate behar du eta dio beti ezin dela nahi den dena egin: "Bezeroak zer nahi duen ere irakurri egin behar da. Non lan egiten duzun, zer bezero tipo duzun... dena zaindu behar da, eta ez da beti erraza. Sortu



gauza asko sortu daitezke sukaldean, baina jendea jatera ausartzen ez bada, jai dago". Orekan dago giltza. Bera dena probatzekoa dela dio, eta batez ere esker onekoa dela. "Gustatzen zait gauza berriak probatzea, eta batez ere, aparteko zerbait eskaintzen didaten lekuetara joatea, baina normal jatekoa naiz ni. Gaur, entsalada eta lentejak. Hori bai, izugarri eskertzen dut bazkaltzera gonbidatzea. Ipini niri entsalada bat eta patata tortilla bat platerean, eta zoriontsu naiz!".

### "DENA ALDATU DA"

Hogeita bost urtean gauza asko aldatu dira, baina batez ere jendea aldatu dela dio. "Lehen ez zegoen alergiarik eta intolerantziarik. Orain, gazte jende askok du zerbait. Autobuskada bat jubilatuta etortzen da bazkaltzera eta inork ez du ezer, baina gazte-jendea etortzen bada, mila gauza zaindu behar dira. Orain, haurdun daudenak gaixo daudenak beste zaintzen dira, eta jaiotzen diren ume guztiek dute allergia edo intolerantziaren bat. Nik ez dakit zer den, baina sukaldatzea asko zaildu da urte gutxiren buruan". Ohiturak ere aldatu dira, batzuetan onerako eta beste batzuetan okerrerako, negozioa duenarentzat. "Orain gehiago irteten da jendea, eta gehiago irteten denez, merkeago

*"Gustatzen zait gauza berriak probatzea, eta batez ere, aparteko zerbait eskaintzen didaten lekuetara joatea. Eta izugarri eskertzen dut bazkaltzera gonbidatzea"*

jan nahi izaten du, baina jenero ona eta zerbitzu ona ordaindu egin behar dira; ez dago besterik". Kritikoak ere ugaritu direla dio, eta bi arrazoi topatzen ditu: batetik, etxeetan lehen beste sukaldatzen ez den arren, sukaldaritzaz gehiago uste dakien jendea dagoela, eta bestetik, sare sozialek-eta bidea zabaldu dutela momentuan pentsatzen den hori esateko, askotan horrek izan dezakeen eraginetan gehiegi pentsatu gabe: "Orain, etortzen da bezero bat jatetxera, ez zaio gustatzen prestatu diozuna edo guk geuk egun txar bat izan dugu, eta kapaz da sare sozialetan larrutzeko, horrek guri egin diezagukeen kaltean erreparatu gabe. Presio handiarekin dihardugu orain lanean eta hori pisua da, nahi ala ez".

Hobekuntzarik ere izan da, baina, zerbitzuetan, bereziki pandemiaren geroztik. "Bukatu dira 14 orduko lanaldiak, astean zazpi

egunez lan egiteak. Orain, astean bi jai-egun hartzea normalagoa da. Guk ez dugu afaririk ematen, ez bada zapatuetan, ezkontzetan, eta hala ere, zaila da lanerako jendea topatzea... Irakasgai onak utzi zizkigun pandemiak. Nik neuk ez dut pandemian beste gozatu nire etxeaz. Hozkailu guztiak janariz beteta, eguraldi ona... zer izan zen hura! Orain ere, brometan sarri esaten dugu hartuko genukeela hamabost eguneko pandemia bat tarteka". Salbuespenetan ez bada, bazkariak bakarrik zerbitzatzen dituzte gaur Belaustegin. Ikasi dute bizitzeko lan egin behar dela, eta ez alderantziz, baina gizartean izan diren ohitura aldaketek ere ekarri dute erabaki hori erraztea: "Gauetako mugimendua izugarri jaitsi da urte batzuetatik hona, eta bazter guztietan". Datorrenari egokitu behar da beti, eta horretan saiatzen dira Belaustegin, ahal baldin bada, datorren horri aurrea hartuta. Xabier Albizuren egitekoa da hori. Enpresa munduko ikasketak ditu, Mugertzaren oso bestelako perfila du, eta Belaustegi jatetxearen kudeatzailea da. "Neuretzako nahi dudana ematen saiatzen naiz Belaustegin: gertuko tratua, eta gurea moduko jatetxe batean esperientzia ahaztezin bat bizi dezaten behar duten dena".

## BELAUSTEGI ETXEAREN HISTORIA

Bezerearekin tratu zuzena du Albizuk, eta berak egin zigun harrera ere azkena, eta erakutsi zigun etxea. Haren ahotik jaso dugu Belaustegi etxeari buruz gutxik jakingo duten historiaren berri ere, duela hiruzpalau urte jakin zutena, Legazpiko historialari bati esker. Albizuk aipatu zuen Oñatiko artxiboan badagoela dokumentu bat 1451.urtekoa, zeinak esaten duen gaur Belaustegi jatetxea dena korta handi bat zela. "Belaustegi etxearen lau hormak baziren, eta gaur jantoki printzipala zena zuen oinarria. Korta handia zen, orduko sarrera gaur jantoki pribatuak dauden lekuraino iristen zelako". Hurrengo dokumentua ehun urte geroagokoa da, 1550. urtekoa, eta dokumentu horretan baserri gisa ageri da Belaustegi. "Historialari batek aipatu zidan Euskal Herrian bi arotakoak direla baserri gehienak: aurrez kortatzat erabili zituzten eraikinen gainean XVI. mendean eraikitakoak direla batzuk, eta beste batzuk, XVII. mendean, jendeak dirua egin zuenean,

eraikitakoak. Politagoak izaten dira horiek, arkupedunak-eta".

Belaustegiren aipamena egiten duen hurrengo dokumentua 1650. urtekoa da, eta errentamendu-kontratu bat da. Kontratu horren sinatzaile gisa Isabel de Lobiano eta Pedro Idiaquez ageri dira. XVI. mendean, oinordetzan ondasun gehien zituen pertsonetako bat izan zen Euskal Herrian Isabel de Lobiano, Mutrikuko Berriatua dorretxeko alaba [Mutrikuko kaiaren goialdean kokatua dago, eta garai batean bertatik portuaren zaintza lanak egiten zituzten. Sulegua dorretxea izenez ere ezagutzen da]. Brigida Berriatua amamarengandik jaso zituen Isabelek oinordetzan gaur Belaustegi dena eta inguruko sailak.

Historia handiko emakumea izan zen Isabel de Lobiano, eta Jose Antonio Azpiazu historialariak liburu bat ere eskainia dio: *Historia de un rapto*. Liburuan kontatzen du Brigida Berriatuak komentu batera bidaltzekoa zuela Isabel biloba 8 urte betetzean, han hezi eta Bizkaiko dirudun baten semearekin ezkondu zedin gero. Baina, Isabel Azkoitiko Idiakaiztarren semearekin maitemindu zen, Pedro Idiaquez 14 urteko mutikoarekin, eta bien artean bahiketa bat antzestu eta Mutrikutik ihes egin zuten, Zestoako Lili jauregian babesteko. Sekulako zaparta sortu zuen auzi honek garai hartan eta auzitegietan amaitu zuten, baina garaiko epaileek Idiazkaiztarren alde ebatzi zuen, bahiketa barik Isabelek berak diseinatutako plana izan zela arrazoituta. Isabel desheredatu egin zuten orduan, baina senide guztiak hil ahala, ondasunak errekuperatzen joan zen eta 1650eko agirietan bera eta bere semea, senarra zuenaren izen bereko Pedro Idiaquez, ageri dira Belaustegiko lurren jabe.

"Hona Belaustegi abizeneko bezere asko etortzen dira beren jatorria hemen dagoelakoan, baina ez. Etxe honek ez dauka abizen jakin batekin loturarik. Historian zehar, errentero asko izan ditu. Josuren aitaren aldeko amonaren partekoak izan ziren azkenak, errentero izatetik jabe izatera pasatu zirenak, garagartzatarrak. Mugertzatarrak Cascante baserrikoak dira". Zapuztuko zen Belaustegira beraien abizenaren jatorri bila joandako askoren ilusioa, baina benetako historiak gehiago jakiteko ilusioa piztuko zien beste askori. Hariari heldu nahi dionak hor dauka aukera bat.

# JON ANDONI MARTIN

## 'PEGOTE'

### Argazkilaria

✍️ Ainhoa Andonegi   🎤 Asier Orbea

Otarre jatetxetik ezagutuko dute askok Jon Andoni Martin 'Pegote' (Azkoitia, 1964), baina argazkilaria ere bada afizioz. Urteak daramatza argazkiak ateratzen, eta teknika analogikoa zein digitala ezagutu ditu, baina berari gustatzen zaiona kolodiei hezearen teknika da. 1951n sortutako teknika da, eta argazkiak atera ostean, kimiko desberdinak erabiliz errebelatzean datza. Aita Agirre eraikineko arkupean atondu zuen antzinako tankerako argazki estudioa teknika erakusteko, eta hainbat herritar pasatu ziren bertatik argazkiak ateratzera. Ongarrik antolatuta, erakusketa inauguratu zuen joan zen astean Kultur Etxean, eta irailaren 26ra arte egongo da ikusgai.

**Otarre jatetxetik ezagutzen zaituzte askok Elgoibarren, baina askok ez genekien argazkilaria ere bazarenik.**

Argazkilaria ez dakit naizen, baina, bai, gustatzen zait argazkilaritza. Estudio bat daukat Azkoitin eta orduak ematen ditut bertan, baina afizionatua naiz. Enkarguren bat edo beste egiten dut tarteka, baina ni ez naiz argazkilaritzatik bizi. Jatetxean egiten dut lan eta harek ematen dit jaten. 12-13 urterekin eskuratu nuen lehenengo argazki kamera eta ordutik beti ibili naiz erretratuak ateratzen. Pentsa, garai hartan argazkiak atera eta negatiboak gorde ere ez nituen egiten! Gerora ikasi nuen zein garrantzitsua zen negatiboa gordetzea, baina hasieran argazkiak bakarrik gordetzen nituen. Argazki kamera hura oraindik ere badaukat, erakusketan jarri dut ikusgai eta oraindik ere erabiltzen dut tarteka. Polita zen garai hura. 24ko karretean erosten nuen, dendara eraman eta irrikitan egoten nintzen argazkiak ikusteko. Gero digitalarekin erabat aldatu zen dena, eta hasieran gustura ibili nintzen, badituelako bere abantailak, batez ere momentuan ikusten duzulako atera duzuna, baina argazki gehiegi ateratzen hasi nintzen. 500 edo mila argazki ateratzen nituen, gero bi aukeratzeko. Orain



*“Batzuetan egun osoa behar izaten dut argazki bat egiteko, baina emaitzarekin oso gustura geratzen naiz”*

kolodiei hezearen teknikarekin nabil, eta argazki bakoitzarekin gozatzen dut.

#### Zertan datza?

Kolodiei hezearen teknika 1851koa da. Teknika oso berezia da, eta argazkigintzan iraultza handia ekarri zuen. Argazkilaria prozesu guztiaren arduraduna da, eta nire kasuan ere, neuk egiten dut argazkia ateratzetik errebelatu arteko prozesu guztia. Produktu kimikoen nahastea ere neuk egiten dut, neuk erosten ditut produktu guztiak; eta batzuk pozoitsuak ere badira. Zianuroa ere erabiltzen dut, eta hori erostea ez da hain erraza. Oso kontrolatuta dago, eta ez diote edozeini saltzen.



Beste produkturen bat ere erabili daiteke, baina niri zianuroa gustatzen zait garbia delako eta oso ondo fijasen duelako irudia. Argazkia ateratzeak ere badauka bere konplikazioa. Hainbat segundoko esposizioa eskatzen du eta pertsona oso geldi egon behar da. Horregatik, taldeko erretratuak ateratzea zaila izaten da. Ez dauka gaur egungo argazkilaritza digitalarekin zerikusirik; hau askoz pausatuagoa da. Argazki bat egiteko hamabost minutu behar dira gutxienez, eta askotan gehiago ere bai. Argazki guztiak bakarrik eta esklusiboak dira; ez daude argazki berdin bi.

### **Gaur egun bizi garen abiadura kontuan hartuta, zuk pazientziatz hartzen duzu argazkilaritza.**

Digitalean ere aritu nintzen garai batean, baina estresantea iruditu zitzaidan. Argazki pila bat ateratzen nituen, gero haiek guztiak deskargatu egin behar nituen, editatu... Ordu pila bat pasatzen nituen ordenagailu aurrean. Ni askoz gusturago nabil antzinako teknika honekin, eta emaitza asko gustatzen zait. Batzuetan egun osoa behar izaten dut argazki bat egiteko, baina oso gustura geratzen naiz emaitzarekin. Argazki bereziak dira, desberdinak, testurak ere oso interesanteak... eta argazki guztiak dira desberdinak. Modelo bati hamar argazki aterata ere, ez dira bi berdinak irtengo. Teknika honekin ezin da presaka ibili. Kimikoak ere neuk prestatzen ditut produktu diferenteak nahastuta, eta horiek ere ezin dira prestatu eta berehala erabili. Kasu batzuetan hilabete ere laga behar izaten da likidoa emulsionatzen. Estudioan ordu pila bat pasatzen ditut, baina gustura. Dena nire kabuz ikasi behar izan dut. Batetik, alor teorikoa



*Erakusketan ikus daitezkeen bi erretratu.*

ikasi behar izan dut, baina gero asko praktikatut ere bai. Argazki handiak estudioan egiten ditut, kamera berezi batekin. Ukrainan erosi nuen gerra bete-betean, eta bi hilabete pasa egon nintzen zain. Pakete handia zen eta norbaitek pentsatuko zuen agian arma arriskutsuren bat zela!

### **Kultur Etxean daukazu erakusketa hilaren 26ra arte. Zer ikusi daiteke bertan?**

Bi teknika desberdinetan ateratako argazkiak jarri ditut: dagerrotipoa eta kolodio hezea. Paisaje batzuetako argazkiak ere badaude, baina gehienak erretratuak dira. Azkoitiarrak dira gehienak, baina elgoibartar batzuen argazkiak ere badaude. Berez erakusketa da, eta argazkiak ez daude salgai. Nik niretzako egiten dut hau, niri gustatzen zaidalako. Argazkiak saltzeak pena handia ematen dit.





## SAGASTIAN SALTAKA

Upategi berria inauguratu zuten eguerdian, eta arratsaldean jokatu zuten Lizagasar erronkaren bigarren edizioa. 27 lagunek hartu zuten parte, tartean hiru emakumek. Gizonezkoetan, Iñaki Goenaga iazko irabazlea jarri zen lasterketa buruan hasieratik, baina gertutik segika izan zuen Iñigo Lariz. Azkenean, Lariz izan zen lehena 50:36 denborarekin, eta Goenaga bigarren lekuan helmugaratu zen 53:05 denbora eginda. Urko Lozano izan zen hirugarrena, 55:15 denborarekin. Sari banaketa egin aurretik polemika bati soluzioa eman behar izan zioten epaileek, izan ere, Iñigo Larizek akats bat egin zuen ibilbidean. Bi minutuko zigorra jarri zioten, baina hala ere, berak jantzi zuen lasterketako irabazle absolutuaren txapela. Emakumezkoetan Alazne Lozanok irabazi zuen 1:14:45 denborarekin. Pilar Arriola bigarren lekuan iritsi zen 1:17:14 denbora eginez, eta Laura Cid izan zen hirugarrena, 1:46:02 denborarekin. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)

📷👤 Ainhoa Andonegi





## Head Holes, Pelax, Gailu, Mice eta Belako taldeek joko dute hilaren 21ean, Mendaron, Gararocken



Musikak hartuko du bihar zortzi Mendaroko Garagartza auzoa. Uztailean egin zuten aurrerapen kontzertua, eta orduan aurkeztu zuten kartela ere, Eusebio Mugertza *Txirristaka* herriko bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurrenari keinua egiten diona. Orduan jakinarazi zuten bost talde arituko direla aurten, Head Holes, Pelax, Gailu, Mice eta Belako taldeak hain zuzen ere, eta aurrez Arriera antzerki taldekoek *Eden* obra taularatuko zutela. Eguaztenean jakinarazi zuten, baina antzezleetako baten osasun gorabeherengatik, bertan behera utzi behar izan dutela azkenean antzerki emanaldia. Era berean jakinarazi zuten, aurten, Mendaroko bertso eskolako ikasleek parte hartuko dutela Gararocken, Txirristakaren urteurrenaren harira.

Gainerakoan ohiko osagaiak izango ditu Gararockek. Herriko musikazale talde batek antolatzen du jaialdia, Mendaroko Udalaren, Uztargi tabernaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Gipuzkoako talentua baloratzeko eta bultzatzeko eta Gipuzkoako eszena dinamizatzen laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxa Fundazioak abiatutako Katapultatour Gipuzkoa programan sartu dute. Jaialdi txikien magia eta gertutasuna ditu. Herriko boluntarioek jardungo dute lanean eta food truck gunea eta txosna ere jarriko dituzte antolatzaileek, Garagartzan.

### Jolasaren astean parte hartu nahi duten eragileek irailaren 20rako eman behar dute izena

Udal Gaztelekuak, Udal Ludotekak eta Atxutxiamaikak Jolasaren Astea antolatu dute urrirako, eta hilaren 25ean jolasa kalera aterako dute, herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean. Kalegoen plazan izango da ekimena, 17:30etik 19:30era. Udalak herriko eragileak animatu nahi ditu parte hartzera. Interesa duten horiek [jostailuerakusketa@gmail.com](mailto:jostailuerakusketa@gmail.com) helbidera idatzi dezakete edo 943 741 746 telefonora deitu irailaren 20a baino lehen. Edozein zalantza izanez gero, emandako telefono edo posta elektronikoen bidez ere jar daitezke harremanetan.

### Dantz musika elektronikoaren jaialdia antolatu du Elgoibako Udalak irailaren 21erako



Azkue auzoan izango da jaialdia, irailaren 21ean. 18:00etan hasi eta gauerdira arte egongo dira DJak musika elektronikoa jartzen. Goizez, baina, gaztelekuan ere entzungo da musika estilo hori. Izan ere, 11:00etatik 13:00etara bitartean DJ saioak eta DJ masterclassa ere emango dute Dantz Pointekoek.

## Bertso saioa antolatu dute Mendaron gaur zortzirako

**B**ertso saioa antolatu du Mendaroko Gazte Asanbladak gaur zortzirako, irailaren 20rako, eta astelehenean jarri zituzten sarrerak eskuragai. Gaztetxean izango da saioa, eta doan lortu ahal dira sarrerak, Morroskillon eta Leire jantzi-dendan, irailaren 19a aurretik. Lau bertsolari arituko dira kantuan: Aitor Zubikarai itziartarra, Bittor eta Txaber Altube anaia abadiñoarrak eta Maide Garmendia zaldibiarra. 22:00etan hasiko dute bertso saioa, baina aurrez, 21:00etan, mokadua egiteko aukera ere izango da Gaztetxean bertan.



### Herrian bertan euskara ikasteko aukera emango du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak euskara eskolak eskainiko ditu aurten ere, In Leikereren eta UEMaren laguntzarekin. Euskara ikasi nahi dutenek irailaren 21a arteko epea dute izena emateko. Horretarako, 943 033 282 zenbakira deitu dezakete 09:00etatik 14:00ak bitartean edota udaletxeko harrerara gerturatu. On-line izena emateko modua ere badute hala ere, Mendaroko Udalaren webgunean sartu eta euskara eskolen inguruko albistean dagoen galdetegia beteta. Zer premia duten zehazteko eskatu diete interesdunei eta agindu saiatuko direla haien beharrak aseko dituen erantzuna ematen.



### 'Letren harietatik jolasean' irakurketa klubak jarraipena izango du Mendaron

Mendaroko eskola-umeentzat irakurketa kluba antolatu du aurten ere Arno Guraso Elkartek, Udalaren eta DanobratGroupen laguntzarekin. HH5etik LH6ra arteko umeei dago zuzenduta eta Mireia Delgado pedagogo eta ipuin kontalariak gidatuko du. Saioak hilean behin izango dira, udal liburutegian, eta urriaren 1a arteko epea dago izena emateko: [arnoformakuntza@gmail.com](mailto:arnoformakuntza@gmail.com).

## Zabalik dago Elgoibarko eta Mendaroko bertso eskoletan izena emateko epea



Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin batera jarri dituzte martxan aurten ere bertso eskolak bi herrietako Udalek, eta izena emateko epea zabaldu dute bietan. Elgoibarren, irailaren 12ra arteko epea dago, eta izena emateko 943 744366 telefono zenbakira deitu edo [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera idatzi behar da. Mendaron, berriz, udaletxean bertan dituzte eskuragarri eskuorriak interesa dutenek, baina Internetez ere eman daiteke izena [gipuzkoa@bertsozale.eus](mailto:gipuzkoa@bertsozale.eus) helbidera idatzita. Irailaren 15a da azken eguna.



### Zabalik dago 'Paperezko hegoak' gazteentzako irakurketa klubean izena emateko epea

Irakurtzeko ohiturarik ez duten edo irakurtzen gozatzen ez duten LH4, LH5 eta LH6ko gazteei zuzenduta dago *Paperezko hegoak* irakurketa kluba eta saioak Elgoibarko Udal Liburutegian izaten dira, Peru Magdalena idazleak gidatuta. Aurtengo saioak urriaren 8an, azaroaren 12an eta abenduaren 10ean izango dira, 17:00etatik 18:00etara, eta urtarriletik aurrerakoak laster jakinaraziko dituztela zabaldu dute Udaletik. Irakurketa klubean parte hartzea doan da, baina izena eman behar da, eta saioetara joateko konpromisoa eskatzen dute. Liburutegian eman behar da izena, irailaren 27a baino lehen, baina izena eman aurretik 943 743 525 edo 688 710 138 telefonoetara deitu behar da.

Elgoibarko Udaletik parte hartzera animatu dituzte herriko familiak. Irakurtzeko zaletasuna sustatu, gazteek liburutegiarekin duten lotura indartu eta gazteen garapenean lagundu nahi dute.

## Datorren astean zabalduko dituzte atiak Elgoibar eta Mendaroko udal ludoteka eta gaztelekuetan

**I**tzuli dira eskolara eskola-umeak, eta datorren astean zabalduko dituzte Udal Ludoteka eta Udal Gaztelekua Elgoibarren; bai eta Mendaron ere. Martitzenean, irailaren 17an, zabalduko dute ludoteka Elgoibarren, 16:30ean, eta biharamunean, eguaztenean, gaztelekua, 17:00etan.

Mendaron, atiak irekitzeko egunak izango ditu ludotekak irailaren 16tik 20ra artekoak, umeak zer den ikus dezaten. Ikasturte honetan ere adin tarte bakoitzak bere egunak izango ditu. HH4 eta HH5ekoek martitzen eta barixakuetan izango dute zabalik ludoteka; LH1 eta LH2koek astelehen eta eguaztenetan, eta LH3-LH4koek, eguenetan. Ordutegia berbera



izango da denentzat: 17:00etatik 18:30era, eta interesa dutenek izena eman beharko dute, [mendarokogaztelekuetaudaludoteka@gmail.com](mailto:mendarokogaztelekuetaudaludoteka@gmail.com) helbidera idatzita edota 613 035 413 telefono zenbakira deituta. Irailaren 20an zabalduko dute, bestetik, gaztelekua. 2008tik 2012ra urte artekoentzako aisialdi gunea da, barixaku, zapatu eta domeketan zabalduko dutena, 18:00etatik 20:00etara. LH5 eta LH6ko ikasleentzat Zubigazte programa ere izango da, eta hilean bi zapatutan, propio haientzako ekintzak egingo dituzte. Hilaren 21ean itxita egongo da Gaztelekua Gararock jaialdia dagoelako.

## Mugan taldeak kontzertua emango du bihar Kultur Kafean

Mugan talde donostiarrek kontzertua emango du bihar, hilak 14, Elgoibarko Kultur Kafean. Mugan taldea 2019an sortu zuten Donostian, eta hainbat aurrerapen kantu atera ondoren, *Bizirik ez bagaude* diskoa argitaratu zuten 2022an. Handik urtebettera kaleratu zuten bigarren diskoa, *Aurrera ez den alde batera*. Pop-rock eta



folk doinuak egiten dituzte bereziki. 22:30ean hasiko da kontzertua.

## Lila sarien banaketa ekitaldia eta 'Magma mia' bakarrizketa irailaren 19an

Lila Emakumeen Etxearen hirugarren urteurreneko ospakizunean banatuko dituzte Lila Sariak Elgoibarren, irailaren 19an, 18:00etatik aurrera. Sarrera librea izango da. Ekitaldiaren ondoren, Beatriz Egizabal aktore eta clownaren (Lasarte-Oria, 1971) *Magma mia* bakarrizketaz gozatzeko aukera ere izango da egun horretan. Militantziatik asko, baina umoretik are gehiago duen ikuskizuna dela aurreratu du Egizabal berak.



# Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa bat, Elgoibarren



Urretxun hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa bihar, irailaren 14an, eta final-zortzirenetako kanporaketa bat Elgoibarren jokatu dute irailaren 22an (domeka, 17:00etan).

Txapelketan kantuan ariko diren 48 bertsolarietatik 34 bertsolarik udaberrian jokatu zen Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean eskuratu zuten txapelketarako txartela. Gainontzeko hamalau bertsolariek duela bost urteko txapelketan eskuratu zuten txartela. Horiez gain, hamasei gai-jartzaille, hamabost epaile eta laguntzaile ugari izango dira txapelketan lanean. Elgoibarko bertsolaririk ez dagoen arren, gai-jartzaileren taldean dago Irati Agirreazaldegi eta epaileenean Eneritz Azkue.

Hiru hilabete iraungo ditu txapelketak. Urretxun

hasi eta abenduaren 14an Donostiako Illunben jokatu dute finalera bitartean hamasei saio izango dira.

## Elgoibarko saioi parte-hartzaileak

Elgoibarko saioa Herriko Antzokian jokatu dute, sei bertsolari arituko dira bertsotan, eta Olatz Zuazubiskar izango da gai-emalea. Saio guztietarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean daude eskuragarri. Hona Elgoibarko saioan arituko diren sei bertsolariak: Eli Pagola Apezetxea (Hernani, 1995), Eneko Araiztegi Agirre (Segura, 1996), Iñaki Apalategi Astigarraga (Beasain, 1982), Libe Goenaga Arrieta (Getaria, 1999), Unai Izagirre Etxeberría (Azkoitia, 1995) eta Uxue Fernandez Lasa (Urretxu, 1984).

## 'Elgoibar, elkar zaintzen duen herria' da 2025eko egutegi lehiaketarako gaia

2025eko egutegia osatzeko lehiaketa antolatu du aurten ere Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari elkartearekin batera, eta gogoratu dute aurtengo urriaren 8ra arteko epea dagoela argazkiak aurkezteko. 2023ko urritik 2024ko urriaren 8ra bitartean Elgoibarren egindakoak izan beharko dira argazkiak, eta [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera bidali beharko dira. Epaimahaiak hamabi argazki aukeratu ditu

egutegi handirako, eta beste bat, egutegi txikirako. Aukeratuak argazki bakoitzaren jabeak 80 euroko bonua eskuratu du, Txankakua merkatari elkarteko dendetan gastatzeko.

Parte hartzeko 16 urtez gorakoa izan beharko da eta bakoitzak, gehienez, sei argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina, gehienez ere, pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dituzte. Lanak originalak izan beharko dira.

## Hilaren 27an emango dute Elgoibarren 'Todas las hijas', urtarrilean bertan behera laga behar izan zuten obra

Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute urtarrilean bertan behera laga zuten *Todas las hijas* antzezlan irailaren 27an ikusi ahal izango dela Herriko Antzokian (19:00). Urtarrilerako erositako sarrerekin joan ahal izango da antzokira, baina dirua itzul diezaioten nahi duenak aukera izango du bueltatzea eskatzeko. Txarteldegian erosi zituztenek lehiatilan bertan jaso ahal izango



dute dirua, eta on-line erosi zituztenek, berriz, [herriko.antzokia.elgoibar@gmail.com](mailto:herriko.antzokia.elgoibar@gmail.com) helbidera idatzi beharko dute, dirua itzultzeko eskatzeko.



**ONGARRI  
ZINE KLUBA**


## 'El mal no existe' film japoniarrarekin hasiko da Iñaki Agirre Zinema Zikloa eguaztenean

✍ Leire Urkidi

**H**ilaren 18an abiatuko da Iñaki Agirre zinema zikloa eta bi egun beranduago inauguratuko da Donostian Nazioarteko Zinemaldiaren 72. edizioa. Ongarri Zine Klubak eta Elgoibarko Udalak Zinemaldiarekin bat eginez irailero antolatzen duten zikloak, azken urtean nazioarteko zinemaldietan erakutsitako lau film arrakastatsu proposatzen ditu. Aurten film japoniarra, italiarra eta espainiarrak aukeratu dituzte.



### 'El mal no existe' .....



Ryusuke Hamaguchiren *El mal no existe* (Aku wa Sonzai Shinai / Evil Does Not Exist) filmak emango dio hasiera Iñaki Agirre Zinemaldiari. Iaz Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko Perlak sailean ikusteko aukera izan genuen. Perlak saila nazioarteko gainerako zinemaldietan arrakastatsuak izan diren filmek osatzen dute. Izan ere, film japoniarra Venezian film onenaren Urrezko Lehoia irabazteko lehian egon zen. Bertan, epaimahaiaren sari nagusia eta FIPRESCI saria, Prentsa Zinematografikoaren Nazioarteko Federazioaren saria, eskuratu zituen. Ondoren, Londresko Zinemaldian Film Onenaren saria jaso zuen. Ezin ahaztu dezakegu Hamaguchik *Drive my car* filmarekin nazioarteko film onenaren Oscar saria irabazi zuela (2022).

- Irailak 18, eguaztena, 21:00etan
- Irailak 19, eguena, 21:00etan
- Iraupena: 105'
- Zuzendaria: Ryusuke Hamaguchi



**'La casa'** .....

Aita hil ondoren, hiru anai-arreba haurtzaroko udak igaro zituzten etxean elkartuko dira. Etxebizitzarekin zer egin erabakitzeko unea da, eta hori uste baino zailagoa izango da. Filmak familiari, herentziari eta denboraren igarotzeari buruz hitz egiten digu, beti etxearen begiradapean, etxea lekuko gisa film osoan zehar. Malagako zinemaldian, besteak beste, Puerta Oscura Feroz saria jasotako filma da.

- Irailak 20, barikua, 19:00etan
- Irailak 21, zapatua, 19:00etan eta 22:15etan
- Irailak 22, astelehena, 21:00etan
- Iraupena: 83'
- Zuzendaria: Alex Montoya

**'Siempre nos quedará mañana'** .....

Italian arrakasta izan duen filma Erroman girotuta dago 1946. urtean. Deliak hiru seme-alaba ditu eta Ivanorekin ezkondu dago. Ivanok ez du ondo tratatzen. Gerraren ondoren, egoera ez da erraza, aurrera egin ahal izateko gaizki ordaindutako hainbat lan egin behar dituzte. Egun batean poztuko dituen albistea jasoko dute: Marcella, alaba zaharrena, Giulioarekin konprometitu berri da, familia oneko oso mutil jatorrarekin. Delia zorionsu dago hasiera berri honekin, etorkizun hobea ekarriko baitu guztiontzat. Hala ere, gutun misterioitsu bat jasotzen du, familia osoaren planak betiko aldatuko dituela agintzen duena.

- Irailak 25, eguaztena, 21:00etan
- Irailak 26, eguena, 21:00etan
- Iraupena: 105'
- Zuzendaria: Paola Cortellesi

**'Los pequeños amores'** .....

*Viaje al cuarto de una madre* lanaren ondoren, Celia Rico Cavellinok amatasunari buruzko beste kontakizun bat eraiki du: *Los pequeños amores*. Teresak oportetarako planak aldatu ditu amari laguntzeko, izan ere, amak istripu bat izan du eta laguntza behar du. Ama-alabek uda itogarria igaroko dute elkarrekin, ados jartzea ez da erraza izango. Hala ere, elkarbizitzak uste baino gehiago astinduko du bien arteko harremana eta elkarrekin une goxoak ere bizi izango dituzte.

- Irailak 28, zapatua, 19:00etan eta 22:15etan
- Irailak 29, domeka, 19:00etan
- Irailak 30, astelehena, 21:00etan
- Iraupena: 95'
- Zuzendaria: Celia Rico Cavellino

## Gipuzkoako Itzulia: Elgoibarko etapa Boschentzat eta sailkapen orokorra Sheridanentzat



**G**ipuzkoako Txirrindularitza Federazioak antolatuta, laugarren emakumezkoen Gipuzkoako Itzulia jokatu zuten irailaren 6tik 8ra bitartean Gipuzkoako errepideetan. 60 bat kadete, 40 bat jubenil, eta 23 urtez azpiko eta elite mailako 30na txirrindulari lehiatu ziren. Itzulia 1,8 kilometroko erlojuz kontrako saio batekin hasi zuten barikuan, Urnietako kaleetan. Bigarren etapa zapatuan jokatu zuten Ordizian. Azken etapa erabakigarria Elgoibarren jokatu zuten eta Mintxetan izan zuen helmuga. Nagusien artean, Massi Baix Ter Women`s Team taldeko Laia Bosh iritsi zen aurreneko postuan Mintxetako helmugara, 2 ordu, 40 minutu eta 20 segundoko denbora

eginda. Irabazlearengandik bi segundora sartu zen helmugan Olatz Marquet Ferran (Team Zatika Bike) eta bost segundora Katherine Sheridan (Tenerife bikepoint) txirrindulari estatubatuarra. Hain justu, Sheridanek irabazi zuen itzulia, hiru etapetan erregularrena izan eta gero. Claudia Sanchez sailkatu zen bigarren postuan eta Maite Urteaga hirugarrengoa. Juniorretan Anayet Alonso izan zen azkarrena Elgoibarko etapen eta sailkapen orokorrean Natalie Revelo portugaldarra gailendu zen. Azkenik, kadeteetan erakustaldia eman zuen Galiziako selekzioko Alejandra Neira Dominguezek, Ordiziako eta Elgoibarko etapak irabazi baitzituen txirrindulari galiziarrek.

### Urre kolorekoa da Mintxetatik Pariserako bidea

Mugertza krosetako antolatzaileak pozik dira Mintxetan lehiatutako saltakariak Parisen irabazitako domina andanarekin. Mugertza krosetan lehiatu izan diren 31 gizonak eta 22 emakumeak hartu zuten parte Parisko Olinpiar Jokoetako atletismoko probetan, eta horietako bostek urrezko sei domina irabazi zituzten: Soufianee El Bakkalik 3.000 metro oztopoetako proban, Joshua Cheptegeik 10.000 metrokoan, Winfred Mutilek 3.000 metro oztopoetan, Tamirat Tolak maratoian eta urtarrilean Mintxetan gailendu zen Beatrice Chebet kenyarrak urrezko bi domina, 5.000 eta 10.000 metroko probetan. Mugertza krosetako egungo txapeldun Berihu Aregawik zilarrezko domina eskuratu zuen 10.000 metrokoan eta zilarrezkoa lortu zuen maratoian Mugertza krosa birritan irabazitakoa den Hellen Obirik. Jokatu diren Olinpiar Joko guztiak kontuan hartuz gero, 66 domina irabazi izan dituzte noizbait Lerungo edota Mintxetako ibilbideetan lehiatu diren antxitxikariek: urrezko



29 domina, zilarrezko hamazortzi eta brontzezko hemeretzi domina. "Emaitzok ikusita, bistan da Mugertza krosaren bedeinkazioa jasotzea ezinbestekoa dela Olinpiar Jokoetan domina bat eskuratzeko", diote krosetako antolatzaileek. Urtarrilero atletismoko izar handiak bertatik bertara ikusteko aukera izatea "luxu" handia dela gogora ekarri dute, eta horretarako hurrengo zita 2025eko urtarrilaren 5a izango dela.

## Kirol ikastaroen eskaintza aurkeztu du Udalak

**E**lgoibarko Udal Kirol Patronatuak 2024-25 ikasturterako kirol ikastaroen berri eman du. Olaizagan eta Mintxetan emango dituzten hamar ikastarok eta Elgoibar Sasoian ekimenak osatzen dute ikasturte honetako eskaintza, igeriketa ikastaroekin eta igeriketa eskolarekin batera.

Honako hauek dira Olaizaga kiroldegian eskainiko dituzten kirol ikastaroak: dantza urbana (astelehen eta asteazkenetan, 17:00etan, 9 eta 16 urte bitarteko gazteentzat); zumba (astearte eta ostegunetan, 10:00etan); pilates (astearte eta ostegunetan, 11:00etan eta 18:00etan); Body HIIT (astelehen eta asteazkenetan, 17:50ean; astearte eta ostegunetan, 9:00etan, 15:00etan eta 20:15ean). Krosfit (astearte eta ostegunetan, 19:15ean) eta Kick-Boxing (astelehen, asteazken eta ostiraletan, 19:00etan). Mintxetan honakoak eskainiko dituzte: spinning (astelehen eta asteazkenetan, 18:00etan eta 19:00etan), Aerobic (astelehen, asteazken eta ostiraletan, 10:30ean), K-Stretch (astelehen, astearte eta asteazkenetan, 10:15ean; asteazkenetan, 15:00etan; ostegunetan, 18:00etan; eta



ostiraletan, 10:45ean) eta Muskulazio Gelan Entrenamendu Pertsonalizatua (astearteetan, 16:00etatik 19:00etara eta ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara). Ordutegiei, jardueri eta izena emateko prozedurei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, herritarrek Olaizaga Kiroldegira joan daitezke 943 744 415 telefono zenbakian edo [olaizagakiroldegia@elgoibar.eus](mailto:olaizagakiroldegia@elgoibar.eus) helbide elektronikora idatzi. Kirol Patronatutik jakinarazi dutenez, oraindik plazak daude eta interesa duen edonork eman dezake izena.

### Elgoibarren jokatuko dute Emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketako finala, bigarren urtez jarraian



Elgoibarren erabakiko da, bigarren urtez jarraian, zein den Euskal Herriko emakumezko aizkolaririk onena. Kalegoen plazan jokatuko dute Emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketaren finala, urriaren 20an (13:00).

Egungo txapeldunak, iaz leku berean jokatuako finala irabazi zuen Nerea Arruti urnietarrak, bost aizkolari izango ditu aurkari: Nerea Sorondo, Oihana Fernandez de Barrena, Laiene Pikabea, Lucia Orbe eta Irati Astondoa.



## Zumaiako taldeen erakustaldia Gojko Vucinic eskubaloitxapelketan

Pulpo kirol taldeak nabarmendu dira asteburuan jokatu duten Gojko Vucinicen oroimenezko txapelketan. Lehiatik harago baina, harrobiko eskubaloiairen topagunea izan zen txapelketa. 300dik gora eskubaloitxapelketa jokalaritatu ziren, kadete mailakoak. Dozenaka partida jokatu zituzten barikutik domekara bitartean, Olaizagan nesken taldeek eta IMHko kantxan mutilenek. Azken urteetan Iruñeko Anaitasunako taldeak nabarmendu dira Sanlok antolatutako txapelketan, baina Zumaiako Pulpok gain hartu die aurten. Pulpo taldeak irabazi zuen

txapelketa nesketan zein mutiletan (mutiletan, iaz ere bai). Nesketan Ermuko Errotaberri eta Zumaiako Pulpo sailkatu ziren finalerako eta Urola kostakoentzat izan zen garaipena: 22-19. Mutilen finala, berriz, Pulpok eta Eibar Eskubaloia taldeek jokatu zuten eta zumaiarrek 28 eta 11 irabazi zieten eibartarrei. Asun Gomez (Pulpo) eta Asier Hueso (Anaitasuna) aukeratu zituzten jokalaritatu onenak eta atezain onenen saria Leire Burguelentzat (Errotaberri) eta Andres Muñozentzat (Pulpo) izan zen. Etxeko taldeei dagokienez, Salento Sanlo

### Berkoa xake txapelketa antolatu du udazkenerako Zubi Ondok

Urtaro guztietan lehiatu daiteke xakean Elgoibarren, Zubi Ondo Xake Elkarteari esker. Berkoa Xake Txapelketaren estreinako edizioa antolatu zuten joan den udaberrian, eta udan amaitu zuten, Jabi Muñoz mendarorria txapeldun izendatuta. Orain, prest dute udazkenerako Berkoa Xake Txapelketa, eta izen-ematea zabalik dutela jakinarazi dute. Mintxeta tabernan jokatuko dute txapelketa, suitzar erara, zazpi errondatan. Izena emateko interesa dutenek [udaberrimintxeta1@gmail.com](mailto:udaberrimintxeta1@gmail.com) helbidera idatzi behar dute mezua.





nesken taldea bosgarren postuan sailkatu zen eta seigarren postua eskuratu zuen mutilenak, Urkunde Sanlo taldeak.

Sanlo taldeko arduradunek asteburu osoan bizi izan den giro ona azpimarratu dute eta pozik

daude harrobiko eskubaloien topaketak eman duenarekin. Urrutiagotik etorritako taldeek, Atarrabia eta Iruñeko taldeek, esaterako, Aubixan eta inguruko herrietan hartu dute ostatu asteburuan.

## Irrisarrilandera irteera antolatu du Morkaikok, mendi bizikleta gainean trebatzeko

Nafarroako Baztan-Bidasoa zonaldean, Igantzi herrian, dagoen abentura parkea da Irrisarriland, eta eskaintza zabala dauka mendi bizikleta zaleentzako, freeride eta enduro klaseak ematen hasi zen lehena izan baitzen inguruotan. Morkaikok BTT irteera antolatu du urriaren 12rako Irrisarrilandera eta gidatze teknika lantzeko ikastaroa ere egingo dute han. Asmoa zera dute: Elgoibartik 08:00etan irtetea da eta eguna Irrisarrilandeko Bike parkean ematea bizikleta gaineko teknika lantzen, han dituzten *dirt track* eta *pump track* ibilbideetan. Irteera mendi bizikletan ibiltzera ohitua dagoen edonorentzako modukoa dela zehaztu dute, eta 55 euroko prezioa izango du (65 euro Morkaikoko bazkide ez direnek. Prezioan, Bike Parkeko sarrera, bazkaria eta garraioa sartuta daude. Autoetan joango dira



Igantziraino. Asegurua eta materialaren alokairua norberak ordaindu beharko du, beharren arabera. Mendiko bizikletan federatu gabekoek segurua kontratatu beharko dute; 8 euroko kostua du. Hamabost laguntzako lekua dago irteeran, eta urriaren 4ra arte eman daiteke izena, online.

**LANA****Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat.

643 085 598

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, gageuz... Ospitalean ere bai.

Beharrezko titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut.

602 490 595

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat.

647 554 386

Adinekoak zaintzeko, mekanika lanak egiteko, mudantzetarako... edozertarako prest nago.

Esperientzia daukat eta titulu

soziosanitarioa ere bai.

614 114 360

Adinekoak zainduko nituzke.

Erizaina naiz eta titulu soziosanitarioa daukat.

Esperientzia. 643 505 632

Gizonezkoa, edozein lan egiteko prest. Malgutasun osoa eta

lanerako gogo handia.

632 721 342

Gaztea, umeak eskolara

eramateko prest. 688 609 045

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.

Asteburuetan ere egingo nuke

lan. Esperientzia handia eta

erreferentzia ezin hobekak eskaini ditzaket. 632 711 473

**Eskaintzak**

LH5eko ume bati ingeles eskolak emateko pertsona baten bila gabilta. Astean bi ordu.

622 815 242

**KINTOAK**

1949an jaiotako kinto ospakizuna, irailaren 28an.

13:00etan San Bartolome

parrokiako aterpean elkartuko dira erretratua ateratzeko. Luntxa

Ibaiondon izango da, eta bazkaria, berriz, Sigman. Interesatuak 70€

sartu behar dituzte kontu honetan

izen-abizenak zehaztuta: ES24

3035 0007 2500 7114 4032. Azken

eguna: irailak 25.

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.


Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Euzkadi Euzkadiako Enkainatzailearen Erakunde Komunitarioa</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitateko jabe batek bere terrazako baranda konpontzeko eskatu du, egoera txarrean dagoelako. Jakin nahi nuke nork hartu behar duen bere gain terrazetako barandak mantentzeko eta konpontzeko ardura.</b></p> <p>Oro har, barandak elementu komuntzat hartzen dira, nahiz eta kontserbazioa eta mantentzea komunitateak erabakitakoaren menpe egon. Aurrekaririk ez badago, Jabeen Batzordeak erabakiko du nork ordainduko duen gastu hori: Bakoitzak bere gastuak ordaintzea (legeak aipatzen dituen itxiera-elementuak ere sar daitezke), partikularraren eta komunitatearen artean ordaintzea, gastu guztia komunitateak ordaintzea, edo, besterik gabe, banaka ordaintzea, erabilera eksklusiboa duelako eta ez delako logikoa jabe batzuek mantenu lana ez egiteak guztientzako gastuak ekartzea. Beraz, Jabeen Batzordeak aztertu beharko du gaia, eta erabaki gokiek hartu, pentsatuz tratamendu juridiko bera eman beharko zaiela aurrerantzean jabe guztiei. Arau orokor horiez gain, egiaztatzen bada jabearen kontserbazio desegokiagatik hondatu dela baranda, erantzukizuna egoeraren kausatzailarena bakarrik izango da.</p> <p><b>ONDORIOA: Kasu espezifikoa begiratu beharko zaio. Baina, hasiera batean, kanpoko aldeko terrazetako baranda elementu komuna da, fatxadaren parte delako, baina horrek ez du esan nahi jabe guztien ardura dela mantenua. Beraz, arazoa zaintzafalta bada, ez da komunitatea konponketa egitera behartuta da-goena, kaltea eragindako jabea baizik</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Maule**, abuztuaren 19an 8 urte bete zenituelako. Etxeko guztion partez.



Sara, gaur 8 urte! Zorionak etxeko guztion partez eta patxo handi-handi bat!



Zorionak, **Jule**, igandean 3 urte handi beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko sorgintxoari. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Naroa**, uztailaren 30ean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Gorka eta Juneren partez.



Zorionak, **Ekhi!** Azkar doa denbora. 7 urte! Muxu handi bat, Kiraren partez bereziki. Segi orain arte bezain alai. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Irene**, 6 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, anaia Alexen partez. Oso ondo ospatu genuen.



Zorionak, **printzesa!** Asko maite zaitugu! Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Unai** eta **amama**, igandean 2 eta 66 urte egingo dituzulako. Pozez ospatuko dugu zuen urtebetetze eguna. Etxeko guztion partez, muxuak.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**

**Ingeleseko irakasle britaniarra, natiboa**

- Erraztasun, zehaztasun eta konfiantza handiagoz hitz egiten ikasiko duzu.
- Klase partikularrak edo 3 pertsona arteko taldeak.
- Aurrez aurre Santa Klara kaleko eskolan.

**681 639 284 (Lucy)**

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH**  
**KGN36VIEA**  
**COMBI**

**699 €**

- No frost
- 326 litro
- 186 zm-ko altuera
- VitaFresh kaxoia, 0°, haragi eta arraintzat
- VitaFresh kaxoia frutetarako eta barazkietarako

**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 13 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408 (eguztetenetik aurrera).

**19:30** Bakarrizketa eta beatbox emanaldia Bocabeats komedia bikotearekin. Malape tabernan.

## 14 ZAPATUA

**22:30** Kontzertua: Mugan taldea. Kultur Kafean.

## 17 MARTITZENA

**16:30** Udal Ludotekaren irekiera.

**19:00** Literatura sorkuntza tailerra. Jasone Osorok emango du saioa. Emakumeentzat, Lilan.

## 18 EGUAZTENA

**11:45** Lanbide Heziketaren 125. urteurreneko ospakizunen hasiera ekitaldia. Kalegoen plazan.

**18:30** Hitzaldia: 'Código ictus'. Duintasuna elkarteak antolatuta, Jubilatuen Biltokian.

## 19 EGUENA

**18:00** Lila Sarien banaketa. Lilak hiru urte beteko ditu, eta Lila Sariak banatuko dituzte. Segidan, *Magma mia* bakarrizketa izango da. Lilan.

## 20 BARIKUA

**21:00** Bertso saioa. Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, Mendaroko gaztetxean.

### 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### IRAILA

13 BARIKUA	Garitaonandia
14 ZAPATUA	Arriola
15 DOMEKA	Arriola
16 ASTELEHENA	■ Fernandez
17 MARTITZENA	Yudego
18 EGUAZTENA	■ Oruesagasti
19 EGUENA	Barrenetxea
20 BARIKUA	■ Soto

2024 urte guztian, gauzez:  
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

### Iñaki Agirre zinemaldia (Ongarri zinekluba)



'El mal no existe'  
18 eguaztena: 21:00  
19 eguena: 21:00

'La casa'  
20 barikua: 19:00  
21 zapatua:  
19:00 / 22:15  
23 astelehena: 21:00

Azken egunak!  
**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

### OHE-IZARETAN ESKAINTZA ZABALA

%50 poliesterra eta %50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera  
(neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)

%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera

Ez galdu aukera paregabe hau! Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)





I. URTEURRENA  
**Ion Garate Guenaga**  
"Katalo"

2023ko abuztuaren 18an hil zen, 43 urte zituela.

**Zure betiko irribarrea eta zure bihotz handia gurekin izango dira betirako.**

Beti gure bihotzetan. Familia eta lagunak.



I. URTEURRENA  
**Justa Armendia Ajuriagoicoa**

2023ko irailaren 10ean hil zen, 95 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 15ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.




X. URTEURRENA  
**Juanito Loiola Bergaretxe**

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

**10 urte igaro diren arren, egunero zaude gure bihotzetan.**

**Asko maite zaitugu.**

Etxeko sendiak



XII. URTEURRENA  
**Jose Mari Aramberri Urrutia**

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez XII. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 15ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

**Mari Carmen Garate Goiartzun**

2023ko abuztuaren 13an hil zen, 95 urte zituela.

**Fede, itxaropen  
eta maitasunezko bakean atsedan.**

Senideak





Nagore Cancio



Udal Euskaltegiak  
Publikoak, irekiak, guztiontzat

# EUSKARAZ

hARTU  
hITZA

Da el primer paso,  
aprende euskera.

 UDAL  
EUSKALTEGIAK

Matrikula  
epea zabalik  
Plazo de  
matriculación  
abierto  
2024-2025

 HADE

## MATRIKULA ZABALIK

**Matrikulaldia: Irailaren 2tik 26ra**

## IKASTAROAK

**Aurrez aurrekoak:** 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.

**Autoikaskuntza Internet bidez.**

**Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.**

**Mailak:** A1, A2, B1, B2, C1, C2.

**Azterketa prestatzeko ikastaroak:** HABEren titulu ofizialak,  
Administrazioa, Osakidetza.

**16 urtetik gorakoentzat.**

**Langabetu, jubilatutako, ikasle eta gurasoek MATRIKULA ERDIA.**  
**Ikastaro amaieran BEKAK denentzat.** (Baldintzak betez gero).

**Informa zaitetz Udal Euskaltegian!**

## MATRIKULA ORDUTEGIA

**ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30**

**2024-2025**

## DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

**ELGOIBAR: Aita Agirre 3, 3.a - 943 742 731**

### Elgoibar

#### 24/25 ORDUTEGIA

##### Astelehena

9:30

14:30

17:30

19:00

##### Asteartea

9:15

18:00

##### Asteazkena

9:30

14:30

17:30

19:00

##### Ostengona

9:15

18:00

Zerbitzuek

YOGA TALDEAN  
YOGA BAKARKA  
YOGA + BRUNCH  
MASAJE LASAIGARRIA  
OPARI BONOAK

☎ 667 742 118

(Erreserbatu zure lekua)

📱 @yogaesentzia



YOGA.  
ESENTZIA





# Udako argazkien lehiaketa

## Sariak

- **EPAIMAHAIAREN SARIA:** Bi lagunentzako bazkari/afaria  
Gabi jotetxean (dastatze menua)
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Errigorako produktu sorta.

Bidali zuen udako argazkiak [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera  
edo 688 655 658 whatsapp zenbakira,  
argazkia non egindakoa den zehaztuta.

Eman zure izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat.  
Parte hartzeko azken eguna: **irailaren 23a**

Oinarriak: **barren.eus**

